


Hitzen itzalean (20 lagunen lanak) lerro artean.....

MIKELAZULO KULTUR ELKARTEA

...edo artean lerroak, edo hitzak, edo esanahiak. Artea lerro arte erraldoi bat izan liteke, begiez eraikia, izkiriatura. Izenburu ezinezkoen magalean eraikitzen diren isiltasunezko poemak, ala ez; agian poeman bezala, ikusleak eraiki behar du lilura, bere egin behar du lerro artea. Eta soilik horrela suertatzen bada irtengo da garaile artista, eta artea bera.

Arte lan bakoitza urrats txiki ororen goraipea da, arteak abiapuntuan bertan biltzen dituelako kilometro guztiak, bilaketan abaildutako urrats guztiak. Bidaiariak bezala, urrats bakoitzean bildu behar ditu xedea eta hura gauzatzeko sinesmena, azkenean egi bilakatuko bada, bidea osatuko bada.

Eta urrats txikien garrantzia gauzatzea norberari jada zaila egiten bazaio, are gehiago taldean gauzatzekoan. Taldean elkartuta hitza era berean abiapuntu eta helmuga izanik ere, bidea bera bilakatzen da helburu.



Mikelazulo kultur elkartea.

“Fotograma bati

kateatu gatzaiskio.

Kearen garretatik

ihes egin dugu

gaua heldu aurretik.

Eleak

barroteen artean

ezkutatu nahi

izan dituztelako akaso.

Baina

gure bakardade gorrian

horrek jasa ez du

garrantziarik,

hitzak amets

bihurtzen ditugulako eta

ametsak hitz.

Ahanzten ikasi nahi genuke

boteretsuago izateko edo

boteretsuago sentitzeko

agian.

Hala ere, memoria

ezin da diskete

batean gorde,

milaka printz

milaka uhinetan

lehertzen baita

barrote artetik

igaro ahal izateko.

Demagun askatasuna

izerdi tanta bat

baino ez dela.

Abiaduraren munduan

ez da bidezidorrik,

baina amaraunaren

azpian beti dago

ezkutaleku bat

oroitzapenen gatibuontzat.

Ez zaitez urduri jarri

ez duzu aitzakiarik behar

isilik egoteko,

zure begiradaren ohiartzuna

nahikoa dut

poesiaren hesia zeharkatzeko.“

(olerkia) Garazi Urdanpilleta. (margolaria) Xabier Zapirain

...Asier Sarasola, Ane Gaztelumendi, Ander Fernandez, Araitz Olaiz, Oscar Manso, Aritz Galarraga, Oier Gillan, Eider Eibar, Gorka Etxeberria Ibai Maritxalar, Pili Mendizabal, Idoia Beratarbide, Ixiar Gartzia, Urtzi Urkizu, Urko Menaia, Aitzol Ezeiza, Urtzi Ibarguen.

Errenteriako Xenpelar etxean eta Pasai Donibaneko Victor Hugo etxean izan dira erakuzketak.

